eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

EHUREKA AHOLKUAK 32

IDATZIZKO TESTUAK ERRAZTEN (I)

www.ehu.es/azpidazki

BY NC

EMUN
LANA EJISKALDUN ZEKO KOOPERATIBA

IRIZPIDE OROKORRAK

Helburu nagusia da ulergarritasuna hobetzea.

Testua errazteak ez du esan nahi edukien maila jaitsi behar denik.

Testua erraztea ez da laburtzea. Hau da, laburtzeak ez dakar nahitaez ulermena handitzea. Batzuetan testua luzatu beharko da ulergarritasuna hobetzeko.

Testuaren jasotzailea da funtsezkoa. Haren mailara egokitu beharko genuke idatzitako testua.

IRIZPIDE OROKORRAK

Ahozko azalpenak testuak errazteko eredu egokia izan daitezke. Ahozkoan, oro har, hizkuntza sinplifikatzera jotzen dugu. Ahozkoan erabilitako estrategiak oso egokiak izan daitezke idatzizkoa errazteko.

Azalpenen argitasuna bezain garrantzitsua izan daiteke ideien antolamendua.

Sarritan testu bat iluntzen duena haren egitura eskasa izaten da, edukien arteko lotura eskasa izaten da.



ZENBAIT ESTRATEGIA

• Testuak **irudiz** hornitu, **argazkiak** erabili, zenbaki askoren ordez **grafikoak**, …

• Erabili tamaina ezberdinak, letra estiloak (**lodia**, *etzana*) eta **letra tipoak** testu zatiak bereizteko edo nabarmentzeko.

• Erabili ertzak, itzaldurak, buletak, …

Dena den, gogoratu tipografia oso garrantzitsua bada ere, testuaren kanpoaldea baino ez dela. Eta funtsezkoena testua bera dela.



ZENBAIT ESTRATEGIA

• **Izenburuak** testuaren egitura argitzeko erabili ohi dira. Erabili, beraz.

• Ideia bat → PARAGRAFO BAT

• Informazioaren **hurrenkera zentzu logikoan** eman: ordena kronologikoan, kausa-ondorioa, azalpen-adibideak, …

• Testuaren egituran **ardatzak argia** izan behar du: ez da komeni testu motak nahastea.